

Atletismoa Euskal Herrian

Euskaldunon Egunkaria, 1995-08-15: 2.

Goteborgeko kirol jai zoragarria ikusi duen euskaldunari, abertzale bada behintzat, bururatuko zitzaion ea zergatik ez ote duen gure herriak, kiroletarako duen ahalmenak kontuan harturik, Atletismoko Txapelketa nagusietan agerrera gehiago lortzen? Euskal kirolak badira gutxienez zazpi, aizkolaritza, harrijasoketa, segapustua, korrikalaritza, palankaritza, soka-tira eta pilota; hauetatik, pilota eta palanka jaurtiketa izan daitezke homologarrienak. Palanka izan da gertuen egon dena; Jose Iguaranek aurkeztu zuen Espainiako Federazioan Berlingo Jokoetarako projektua, baina gerra zibila zela-eta ez omen zen lortu. Espainiako txapelketetan, Gipuzkoako Domintxinek irabazi zuen 1932an, Errauzkin bizkaitarrak 1933an, Agirre gipuzkoarrak 1944, 1946, 1947 eta 1948an, Errauzkin bizkaitarrak 1945, 1949, 1950, 1951, 1952 eta 1957an, Juan Antonio Iguaran gipuzkoarrak, 1953, 1954an, eta Estatuko errekorra 1955ean. Disko eta txabalina jaurtiketan zaletasun handia zegoen gerra aurrean Berazubin, gogoan dut aitarekin ikustera joana. Korrikalaritza ere aurrera ibili da Euskal Herrian, baina apustuak eraman du gehienbat gure artean kirol eder honen muina. Orain, Martin Fiz arabarrak bost lasterketatik 4 garaipen lortu ditu: Helsinkin (1993), Bostonen (1994), Helsinkin Europako Txapelketa (1994), Rotterdamen (1995), eta orain Goteborgen Maratoia (42 km. 195 metro) 2 ordu, 11 minutu eta 41 segundutan Munduko Txapelketa irabazteko.